



■ HITZALDIA

Euskera eta familia erdaldunak hizpide, Amonarrizek AMHER elkartearen eskutik, hitzaldia eskainiko du Kike Amonarriz aurkezle eta filologo tolosarrak bihar; *Nire seme-alabak euskeraz ikasten ari dira, baina nik ez dakit. Nola lagunduko diet?* gaia jorratuko du, hain zuzen. Arratsaldeko 17:30etan izango da, Biteri kultur etxean. ||

■ ANTZERKI ZIKLOA

'Francoren bilobari gutuna', hasteko

Gaur hasiko da, beste behin, Biteriko antzerki zikloa. Hiru egunez luzatuko da, eta antzezlan bat eskainiko dute egunean: bihar, 'Idiot Txou'; eta etzi, 'Los perros'. 20:00etan izango dira saioak.

ANTZERKI ZIKLOA gaur hasiko da Biteri kultur etxean. Hiru antzezlan eskainiko dituzte, gaur, bihar eta etzi, kritika eta umorea uztartuz: *Francoren bilobari gutuna*, *Idiot Txou* eta *Los perros* antzezlanekin. Euskeraz izango dira aurreneko biak, eta gaztelaniaz hirugarrena; guztiak, iluntzeko 20:00etan hasita.

Biterin sarreren erdia goizean jarriko dute salgai, 09:00etatik 13:00etara bitarte; eta beste erdia arratsaldean, 16:00etatik 20:00etara bitarte. Saio bakoitzeko prezioa, 7 eurokoa izango da; baina egongo da aukera orandik, baita ere, hiru saioetarako bonoa erosteko, 16,5 euroan.

Hiru saioetan aurrenekoa, *Francoren bilobari gutuna* izango da, gaur. Ospitale batean kokatuko da, leuzemia daukan haur bat, eta obus



Egoera bereziak biziko dira 'Francoren bilobari gutunak' antzezlanean.

baten arrastoak jotako gizon heldu bat elkartuta. Biziraupenaren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa egingo du.

Idiot Txou emango dute bihar, irratiko saio baten azalean. Audientzia arazoak tarteko, eskuetatik joango zaizkien edukiak lantzen hasiko dira. Bizi dugun aktuali-

tatearen kritika umoretsua da saioa.

Azkenik, etzi, *Los perros* eskainiko dute, etsipena hartutako 3 gaixoren azalean, haien familiek abandonatuta. ||

Argazkia: WWW.FRANCO.EUS

■ KORRIKA KULTURALA

Irakurraldiak 23an, tabernetan

Korrika Kulturalaren barruan, Irakurraldia antolatu dute aurturten ere. Datorren ostegunean izango dira saioak arratsaldeko 18:30etan AEK euskaltegitik abiatu eta herrian zeharreko hiru tabernetan (Bodega, Onddi eta Gurian). Edonork irakurri ahal izango du nahi duen testua, baina baldintza bat jarri dute: ezin da bi minutu baino luzeagokoa izan. ||

■ GREBA

Irakaskuntza publikoan greba

Gehiengo sindikalak greba deialdia luzatu du biharko, martxoaren 22rako, azken urteotan EAEn irakaskuntza publikoak jasaten ari den murrizketak gero eta larriagoak direlako sindikatuen esanetan. Hau horrela, Eusko Jaurlaritzak eta bere hezkuntza Sailak aplikatzen ari diren neurriak salatu nahi dira. ||

■ LITERATURA

'Odol Mamituak', Biteriko gaurko solasaldian

Literatur solasaldirako zita jarri du liburutegiak gaurko. Alaine Agirrerren *Odol Mamituak* liburua landuko dute Biterin 19:30etatik 21:00etara. Esperientzia pertsonalak eta fikzioa uztartuz, irakurlea gaitzete mentalen zurrumbiloiaren barneratzea lortzen du Agirrek helduentzako bere lehen eleberrian. ||

■ TXISTULARI TOPAKETA

Txistulariak, protagonista asteburuan

Hernaniko XII. Txistulari Jaialdia izango da asteburuan. Larunbatean, gaztetxoek txapelketa egingo da Milagrosan, eta tartean izango dira hernaniarrak. Igandean, berriz, topaketa egingo da.

EUSKAL HERRI osoko txistulariak elkartuko dira asteburuan, Hernaniko XII. Txistulari Jaialdian. Gaztetxoek txapelketa eta topaketa ere egingo dira.

Larunbatean, 11:00etan hasita, txistulari bakarlariekin txapelketa egingo da Milagro-

san; tartean, hernaniarrak direla.

Igandean, berriz, kaleak girotuko dituzte txistu hotsekin Txistularien Topaketan. 10:00etan elkartuko dira, udal txeko arkupeetan. 10:15etan dianak egongo dira, hiru-lautaldetan, herrian barrena.

11:00etan hamaiketakoak, Santa Barbara elkartearen. Ondoren, 12:30etan, Ttun-ttuna egongo da plazan. Kalejirak eta dantza doinuak kaleak alaituko dituzte bazkaria baino lehen. Horretarako Iparragire sagardotegian elkartuko dira 14:00etan.

Jazkera zaindu behar da alkandora-blusa zuriak eta galtza ilunak eramanez. Zamarra edo jertseak iluna izan behar du. Gizonezkoek txapel beltza eduki behar dute eta emakumeek, nahi badute, ere bai. Hamaiketako antolatzaileek jarriko dute. ||

OTSUA-ENEA
Asteartetik igandera eguerdian irekita

Osiñaga auzoa
Tel. 943 55 68 94

TILIN & TOLON
BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK
943 55 56 94

Txirita, 10 - HERNANI

Kalitate handiko
4.600 sagarrondo

Tolare sagardotegia

Txotx denboraldia irekita
Maiatzak Iera arte.
Asteartetik ostiralera gauetz
Larunbatetan eguerdian eta gauean
Igandean eguerdian
Berogailua

EULA

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA
Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44

TAXIAK: 943 550093 | **UDALTAINGOA:** 092 | **DYA:** 943 464622 | **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 | **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103
Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / **Gauetz:** Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Eguraldia ezegonkortzer. Goizean lainoak ugaritu egingo dira eta euria egingo du. Eguerdian partean eta aratsaldean euria mardulago egingo du. Gauean atertzera joko du. **Min.8° / Max.12°**
BIHAR Giroa aldatkorra. Egunaren lehen partean giroa lasaia, nahiz eta tarteka euria egin. Aratsaldean euria sarri, tarteka zaparrada moduan, eta azken orduetan atertzera. **Min.7° / Max.12°**
 (euskaime)

■ BISITA

Ate irekiak, Loiolako araztegian

Bihar 10:00etan, 11:30etan eta 13:00etan bisitatzeko aukera egongo da. Izena eman behar da 943 21 31 99 telefonoan edo 'oficinas@agasa.eus'.

URAREN Nazioarteko Eguna dela eta, ate irekiak antolatu ditu Añarbek biharko. Loiolako araztegia bisitatzeko aukera izango da, 10:00etan, 11:30etan, eta 13:00etan. Besteak beste, bertan tratatzen dira Hernaniko etxeetako eta

industrietako hondakin-urak. Parte hartzeko, izena eman behar da: 943 21 31 99 telefono zenbakian edo oficinas@agasa.eus helbide elektronikoan. Loiolako araztegi estazioa benetan ikusgarria da eta bertan nola lan egiten

den ikusi ahal izango da. Añarbeko Urak enpresak mankomunitateko 400.000 biztanleen hondakin-urek sortzen duten lokatz guztia biltzen ditu eta ura garbitu. Loiolako Hondakin-Uren Araztegi egiten da hori. ||

■ KZ GUNEA

Apirileko ikastaroak prest daude

Apirilaren 3an hasiko dira zortzi ikastaro KZ Gunean. Izena eman daiteke Biterin, 943 02 36 50 telefonoan edo 'www.kzgunea.eus'.

APIRILEAN ere egongo dira KZ Gunean ikastaroak eta astelehenean, hilak 3an, hasiko dira lehendabizikoak. Guztira, 5 ikastaro presentzial eta urruneko beste 3 egiteko aukera izango da, apirilean, eta denetan izenematea zabalik dago, debalde. Interesa daukanak, Biteri kultur etxera jo dezake. Bestela, telefonoz deitu, 943 02 36 50ra, tutor.hernani@kzgunea.net helbide elektronikora idatzi edo www.kzgunea.eus webgunean erregistratu. ||

<p>Oinarrizko Internet</p> <ul style="list-style-type: none"> Internet KZgunea ikastaroa. Apirilaren 3tik 21era, 11:00-13:00, euskeraz. <p>Sare Sozialak 2.0</p> <ul style="list-style-type: none"> Sare Sozialak ikastaroa. Apirilaren 3etik 6era, 09:00-11:00, gaztelaniaz. <p>Irudia</p> <ul style="list-style-type: none"> Sormena askatu GIMP tresna erabiliz. Apirilaren 3etik 11era, 16:00-18:00, euskeraz. <p>Google Apps</p>	<ul style="list-style-type: none"> Google ikastaroa. Apirilaren 19tik 28ra, 18:00-20:00, gaztelaniaz. <p>Smartphoneak eta Tabletak</p> <ul style="list-style-type: none"> Smartphoneak eta tabletak; lortu zure Android gailuen etekinik handiena. Apirilaren 20tik 28ra, 09:00-11:00, euskeraz. <p>Urruneko Formazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> Lan bilaketa interneten Apirilaren 3tik Maiatzaren 3ra. Gaztelaniaz. Ofimatika orokorra. Apirilaren 3tik Maiatzaren 3ra. Gaztelaniaz. Dropbox. Apirilaren 19tik Apirilaren 28ra. Gaztelaniaz.
--	--

■ IZOTZ HOCKEIA



Ander Arraras Ligako txapeldunen koparekin.

Ander Arraras, Liga txapeldun

Ander Arraras hernaniarra Espainiako Ligako txapeldun geratu da Txuri Urdinekin. Hernaniar gazteak donostiarrentzat Liga titulua berreskuratu du 17 urte ondoren eta gainera partidu erabakiorrean taldearen lehen gola lortu zuen, Jacaren aurkako finalean. Azkenean 3-4 irabazi zuten hirugarren partiduan, urrezko gol baten ondoren. Lehen bi partiduak etxean irabazi zituzten eta hirugarrenean Jacan bertan gailendu ziren donostiarren. Denboraldi ederra burutu du Ander Arrarasek eta Txuri Urdin izotz hockeieko talde guztiak. Zorionak Ander eta Txuri Urdin! ||

■ GIBELALDE

Lizeaga 3.0 prozesuaren emaitzak

Datorren asteko asteazkenean, martxoaren 29an, aurkeztuko dira jendaurrean azken hilabeteetan gauzatutako Lizeaga 3.0 prozesuaren emaitzak. Aurkezpena RB3 arkitekto taldeak egingo du 19:00etan, Urumea ikastolako musika-gelan. ||

■ HITZALDIA

Etxeko erditzei buruz, apirilaren 4an

Apirilaren 4an, 18:00etan, etxeko erditzei buruzko hitzaldi bat emango du Magaleko emaginak Hernaniko Kultur Etxean. Gaur egun geroz eta gehiago dira etxean erditzea erabakitzen duten emakumeak eta horren inguruan informazio baliagarria eskainiko da. ||

■ MENDIRIZ MENDI

Cocinaserako izenematea, ostegunera arte

Cocinas gailurrera igoko dira datorren larunbatean, Mendiriz Mendik antolatu duen irteeran: Montoriatik abiatuta, 11 kilometro eta 400 metroko desnibela. 07:30etan jarri dute zita, Atsegindegian, eta bazkaria upategi batean egingo dute (50 lagun). Irteeraren prezioa 45 eurokoa da, eta ostegunera arte dago epea, apuntatzeko. ||

➡ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Demokrazia kontua

Udalerriko Orain Hernani taldeko bozeramaile bezala, eta orain dela gutxi argitaratu diren artikulo batzuegatik, hurrengo ohar honetan demokraziarekin zerikusia duten alderdi batzuk azaldu nahi nituzke, jakinak diren arren, noizean behin errepikatzea ez dagoelako lekuz kanpo.

Udalerriko arau onartu da alkatea, udalerriri honen irudakapenaren funtzio lanetan dagoen bitartean, eusten dion partidu politiko aldentzea, guztion alkate bihurtzeko. Honekin esan nahi dut biztanleriaren ahots ezberdinak entzun beharko lituzkeela, eta komisio irekietan parte hartzea. Bi hitzetan, partehartzea eta transparentzia.

Udalerriko erabakiak pertsonen eskubideetan biratu beharko liriteke eta ez bezeria sortzeko neurriekin. Ulertu behar da Udalerriko Korporazioa gure herrian bizi, lan egin edo

herritik igarotzen diren pertsonen zerbitzura egon behar dutela, tratu eta aukeretan berdintasuna egonda. Eta batzuetan, gehien behar duten pertsonak intentsitate handiagoarekin defendatzea.

Nahitaezko ehun egunak pasa ondoren, agindutakoa ez da betetzen ari. Argumentuekin nabarmendu eta ez komisio ezberdinek oposizioan zer leku hartzen duten azalduz. Gure kritikak beti izango dira politikoak eta errespetuz egindakoak. Horregatik, aldi berean, erantzuk politiko eta errespetuz beteak espero ditugu.

Azkenik, gure barne gatazkei buruzko aipamenak lekuz kanpo daudela uste dugu. Klase eta eleganzia gehiago erakutsi behar da, eta zurrumurruei joera gutxiago.

**Jaione Aristregi
Orain Hernaniko
zinegotzi eta bozeramaile**

IRAGARKI MERKEAK

Trasteroa salgai, 13 m2, argitsua eta Hernani erdi-erdian, Izpizua 1ean. Deitu: 660 277 901

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)